

Antonio Zavala Echeverria

Tolosa, 1928-01-23 – Xabier, 2009-01-03

IRIONDO UNANUE, Joxemari

Donostian, 2010eko urtarrilaren 29an

Arratsaldeon.

Nahi nuen, ba, baina urruti samar nago lerro hauek zuen aurrean irakurtzeko. Badakit denbora mugatua daukadala, eta beti luzatzen naizela, batez ere Antonio Zavalaz hitz egitean. Baina laburtzen ahaleginduko naiz, hemen esan ezin dudana gero *EUSKERAn* argitara emango dela pentsatuz.

* * *

Antonio Zavala Echeverria –berari gustatzen zitzaion bezala idatzi nahi izan dut, gurasoengandik horrela ikasi omen zuelako– Tolosan jaio zen, 1928ko urtarrilaren 23an; eta Urteberri arratsean ondoezik sentitu eta berak hain maite zuen Xabierko gazteluan hil zen, 2009ko urtarrilaren 2an.

Hiru egun lehenago, Urtezahar bezperan hitz egin nuen berarekin azkenengoz, eta hiru bider hitz egin ere. Besteak beste, 2009rako eskuartean zituen/genituen amets eta proiektu berriez hitz egin genuen.

Nahiz eta «Ez ba nabil ondo» sarritan esaten zigun, Zavalak eskuak bete lan eta amets edukitzen zuen beti. Gauetz lorik egin ezin eta telebisioa ikusi edo, gehienetan, ordenadorea piztu eta lanean hasi ohi zen, ordutegi biologikoa erabat aldatuta baitzeukan. Azkenengo urteetan, gainera, presa handia zeukan bere gauzak argitara emateko, eta oporrik ere ez zuen hartu nahi izan hiru-lau urtean, nahiz eta leher eginda zebilen, nekatuta.

«Lagun zahar asko joan zaigu gure artetik aspaldi honetan: Joxemari Aranalde, Joan Mari Lekuona, Joan San Martin, Alfonso Irigoien...», eta horrela hasten zen askotan, kezkatu. Eta guk bere sinismena, Aitaren etxea eta holakoak txantxetan aipatu orduko, «Ez, ez daukat presarik oraindik Aitaren etxera joateko!» mozten gintuen, haserre. Medikutan ibili zen askotan, eta *apnea* handia zuela, *cansancio acumulado* zeukala eta hor erabili zuten atzera eta aurrera, baina apenas inoiz asmatu zuten zer zuen. «Urteak, Joxemari, urteak» esaten zigun, eta hortan gelditzen zen, askotan aitzakia hutsa besterik ez zela pentsatzen bagenuen ere.

Egunero hitz egiten genuen telefonoz; eta aldian behin Xabierra joaten gintzaizkion, bisitatu eta elkarrekin egunpasa egitera. Halabeharrez, 2008ko abenduaren 16an bisitatu genuen azkenengo aldiz, Koldo Mitxelena zu-zendari Lopez Landatxe jaunak eta biok, Eguberri jaiak baino lehen berarekin hitz-aspertu bat egin nahita. Sekula baino osasuntsuago eta itxura hobean ikusi genuen, eta halaxe esan genion berari. Baina, «Zer moduz zaude, Antonio?» galdetu orduko, «Badakizu, ba, hortxe, *en la primera línea...*» erantzuten zuen, etsita baina etsi ezinda.

Urtezahar bezperan, Urtezahar eta Urteberri on opatzeko hots egin zidan. Harri eta zur utzi ninduen, ez baitzuen ohiturarik hortarako. Eta hurrengo urterako (2009rako, alegia) lan asko geneukala esanez agurtu genuen elkar: Manuel Olaizola Uztapideren jaiotzeko mendeurrena 2009an, Pedro M^a Otañoren heriotzeko mendeurrena 2010ean, eta abar. Itxaropena argitalexetik Koldo Mitxelena laster heltzekotan zegoen Joxe Manuel Arriola *Mondragoiko kalezainaren* liburuaz, eta Euskaltzaindiak eskuartean zerabilen Antonio Arrueren liburua zertan zen ere galdetu zidan. Beti lanerako baitzegoen hura, beti lehiati eta ameslari.

Gure nahiak eta usteak denak ustel gertatu ziren, ordea. Urtarrilaren bigarren goizean bere koinata Izaskunek dei egin zidan, izututa, Antonio Iruñeko San Migel gaixoetxera oso gaizki eraman zutela esanez. «Klinikoki hilda dagoela esan digu medikuak», esan zidan zotin batean. Eguerdian eta arratsaldean dozena erdi bat aldiz hitz egin genuen gero; eta azkenik, arratseko zortzi t'erdia pasatxo zirela hots egin eta «Antonio hil da!», esan zidan.

Badakigu holakoak berez etortzen direla, horrelaxe dela bizidunon legea, baina lur jota utzi ninduen, hutsunerik ilunenean murgilduta. Zerbait egin nahi eta bere lagunik minenei deika hasi nintzen berehala. Andres Urrutia euskaltzainburu jaunari hots egin nion lehenengo, gero KM-ko Lopez Landatxe jaunari (erdi gaixo harrapatu nuen), Joakin Berasategiri, Pello Esnali (ez nuen etxean harrapatu), Felix Marañari eta Antonioren beste lagun min askori, samin hura norbaitekin erdibanatu beharrez.



Xabierko jesuiten buru den aita Jose Luis Zinkunegirekin ere hitz egin nuen bizpahiru aldiz, hileta noiz eta nola egiteko asmoa zuten jakin nahirik. Eta gure laguntasuna gustura onartuko zukeela esan zidan, hiletak antolatzeko. Eta halaxe, Antoniok maite-maitea zuen Xabierren antolatu zen dena.

Urtarrilaren lau goizean hamar t'erdietarako han ginen Antonioren lagun batzuek; Euskaltzainburua eta euskaltzain batzuk eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak arratsalde zasoiz heldu ziren. Eta hileta-elizkizuna arrats-aldeko 16:30etan egin zen.

1954ko Erregeen bigarren edo hirugarren egunean Xabierren hasi zuen Auspoa proiektu handiak lehenengo bihotzondokoa hartu zuen 2009ko urtearen hasieran. Eta hantxe, Xabierreko hilerri ospel eta bakarti hartan, Izaskungo Andre Mariaren himnoa kantatuz agurtu genuen, goietako paradisuan betiko argia eta zoriona izan dezan eskatuz, berak horrela sinesten zuen-eta.

Hala ere esan behar dugu Antoniok Xabierren hasi zuen proiektua ez dela bertan behera itota geldituko, Auspoaren jarraitzaile taldea onartua baitzuen, Gipuzkoako Aldundiaren (KMK) babesean. Manuel Olaizola Uztapideren mendeurrena ere handikiro ospatu genuen Euskaltzaindiak, Gipuzkoako Foru Diputazioak eta Zestoako Udalak elkar hartuta, Endoiakoaren *Leengo egunak gogoan* berrargitaratu (Auspoa 314) eta *Uztapide bat-batean* (Auspoa 313) bertso-antologia liburua+CD^a argitara emanez, Antonio Zavalaren gogoari erantzunez, hark utzi zuen hutsunea osabetetzea zaila dela ahazteke. Geroztik, Antzuolako Gurutz Azkarateren *Gerokoak*

jakin dezaten (Auspoa 315), *Patxi Iraolaren Naizen apurra* (Auspoa 316), eta *Txomin Garmendiaren 2008ko nere egunkaria* (Auspoa 317) argitara eman dira Auspoan.

A. Zavalaren bertsozaletasuna

Askotan esan eta idatzita dago lehen ere, baina berriro gogoratu beharko genukeela uste dugu, gaur bere hil berria ematean.

Tolosa eta Adunaren artean ernamindu zen Antonio Zavalaren bertsozaletasuna. Batez ere, Adunatik zetorkion bat-bateko bertsoen zaletasuna. Tolosan jaio eta hazi bazen ere, gurasoek Adunan zuten Zabale-txiki etxeari (Antoniok berak elkarrizketa batean esan zidanez «Txanpon-etxea» deitzen omen zioten adunarrek etxe horri, zerga batzuk han biltzen zirelako) oso lotuta pasatu zuen haurtzaroa eta gaztaroa, harik eta 1945eko irailean Jesusen Lagundian sartu zen arte. Gero ere, jesuitetan estudiante zela, familiak Adunan pasatzen zuen udako oporraldia gehienetan, eta Antoniok ere bai. Bereziki maitea zuen eta haraxe joaten zen.

Bertso idatzi edo bertsopaperen xarma eta lilura, bertsopaperak biltzeko afizioa eta arreta, Tolosatik zetorkion, elkarrizketa eta idatzietan askotan esan zigunez:

«Adunan, abuztuko Amabirjiña festetan entzun nituen nik leenengo aldiz bertsolariak bat-batean, erriko zaindari-jaiak orduan egiten ziran-da. Bertsolari aietako bat Asteasuko Bautista Ondartza zala uste det, Pello Errota aundiaren illoba. Eta ondo gogoan daukat ni bertsolarietara adi-adi nengoela ikusita, parre egin zuela gure izeba batek, eta «Zer egitek dek or?» esan zidala. Baiña nik han jarraitu nuen bertsoak entzuten.

Andik urte batzuetara amazapi urteko amezketar gazte bat eram zuten erriko jaietan, eta poz-pez entzun nituen gazte aretxen ateraldiak ere. Eta bertso osoa ez baina oraindik ere gogoan daukat bertsoetako bat nola amaitu zuen:

Ni bezelako bertsolariak
ez da oraindik azaldu.

Amezketako gazte ura gero Ameriketara joan omen zala entzun izan nuen, baiña ez nuen izan aren berririk geiago» (elkarrizketa, Donostian).

Auskalo nor eta nolako bertsolaria izango zen gazte hura. Zavalaren Auspoa sailerako moduko bertsoak ere egingo zituen, agian, baina behin betiko galdu zuen haren arrastoa.

Bertsopaperak biltzen hasteko afizioa, berriz, Tolosan. Berea da honako hau ere:

«Tolosa izan ez balitz, ni ez nintzan bertsoak biltzen asiko. Txikitandik ikusten baintuen nik Tolosan bertso-paper saltzaileak. Eskolapiotatik etxera bazkaltzera nindoala-ta, bat edo beste an izaten zan kantari; baita larunbatetan ere, merkatu-eguna egun orretan izaten zan-da. Bertso-saltzaile auk dira umetatik ikusi eta urteen buruan neri bidea erakutsi zidatenak...».

Orain ez da bertsopaperik saltzen azoketan eta meza ostean. Arrakasta eta harrera oso ona izaten zuten, ordea, orduko pertsopaper-saltzaileek.

Hala ere, han entzun ohi zituen bertso-doinu eta bertsoak baino zerbait gehiago ere bazegoela han pentsatu zuen hamazazpi urteko mutiko hark; eta bere lanari eskuak eransteke gogoia eta adorea handixe sortu hari. Jesuita sartu ondoren, udako oporretan Tolosara joan eta han ikusi zuen bertsopaper-saltzaile bati papera erosi omen zion behin, baina papera galdu omen egin zuen. Ondo gogoan hartu zuen ordea saltzailearen izena: Pello Saikola bertsolaria, hain zuzen; eta haren bertsoekin liburu bat osatu zuten handik urte batzuetara: *Zubeltzu eta Saikola bertsolariak* (Auspoa 93 - 1970).

Lehenengo kartaz hasi omen zen bilketan, ezagun batzuei etxean zeuzkaten bertsopaperak eskatuz. Eta batek baino gehiagok lagundu zion, Antonio askotan aitortu zuenez. Balendin Enbeitak, adibidez, sorta ederra bidali omen zion bere gutunari erantzunez.

Loiolako urte ederrak

Hamazazpi urte zituela Loiolara joan zen jesuitetan nobiziadoa egitera, beste bi anairen bideari jarraituz. Eta ez zeukan hutsean saltzeko han pasa-

tu zuen denbora. Loiolan pasatu zituen urteak sentimentu berezi batekin goratzen zituen. Izan ere, Urola aldeko auzoetako eskoletara bidaltzen zuten estudiante jendea ostegun arratsaldetan haurrei dotriña erakustera eta hola. Eta Antoniori Urrestillako eskola egokitu zitzaion hain zuzen –gure jaiote-txetik hurbil oso dagoen Garaiko basoko iturri eder hartan ur fresko ederra edan omen zuen hamaika aldiz–. Benetan gustura joaten zela esan ohi zuen, hango neska-mutilek euskaraz ederki egiten zutela ohartuta. Oñatz eta inguruko beste mendi-auzoetara ere sarri joaten ziren, Eta gaztelera tutik ez zekien baserritar jendearekin asko hitz egiten zuen.

Giro hori ezezaguna izaki tolosar batentzat, gozatu egiten omen zuen:

«Euskal giro ori arnastu egiten zenuan jendearekin itz egitean –zio-en–. Eta artarako sentsibilidatea izan ezker, zure barrenean bere kutsua uzten zizun orrek. Neri beintzat orixe gertatu zitzaidan Loiolan pasa nituen urteetan... Urduñan (1946-1950) ere berdin gertatu zitzaidan. Opor-egunetan mendira joaten giñan komentua eta kale zuloa utzita, eta topo egiten genuen jendearekin asko itz egiten nuen. An iru probintzitan ibiltzen giñan gaiñera: Bizkaian, Araban eta Burgos aldean... Beno, egia esan, lurralde guzietan aurkitu det nik jende ona eta asko erakusten dizuna Oso esperientzia ederrak izan ziran gazte-denborako oiek denak neretzat...» (Elkarrizketa Donostian, 1998an).

Xabierren irakasle/Maestrillo

Arestian ere esan dugunez, 1945eko irailaren 14an Jesuitetan sartu, eta Loiolan eta Urduñan egin zituen lehenengo ikasketak.

Handik bost urtera, 1950ean, Burgosko iparraldeko Oñara joan zen filosofia ikasketak egitera. Eta «Nere txolarteetan historia pixkat ikasten asi nintzan, eta ia-ia bide ortan sartu nintzan gaiñera. Ori egin izan banu, bertso zaarrak biltzea beste batentzat geldituko zan, eta orrelaxe obe, bearbada», esan zidan¹. Ez zegoen batere gustura bere lanak izan duen harreraz, besterik errepikatzen bagenion ere mila bider.

¹ Elkarrizketa Donostian.

Alabaina, historia kontuak utzi eta berean jarraitzea erabaki zuen. Oñan filosofia ikasketak egiten ari zela, Iruñan argitara emandako Pedro Migel Urruzunoren ipuin liburu bat irakurtzeko aukera izan zuen, ikastetxeko liburutegian aurkituta. Ikaragarri gustatu bide zitzaion Elgoibarko apaizaren euskara eta gauzak esateko modua. Garai hartako puritanismoak ez zuen asetzen Antonio, eta Urruzunok euskara herrikoia eta iturri onekoa ematen zuela ohartu zen, garaiko modak kutsatu gabeko euskara. Haren ipuin eta bertsoak, berezko iturritik zetozela iruditu zitzaion.

Garai hartan Pedro Mari Otañoren *Alkar* izeneko liburua aurkitu zuen liburutegian; eta ahoa bete hartz utzi omen zuen hark. Itxura denez, ikaragarri gustatu zizurkildarraren euskara eta kontakera-kantua. Berak hain maitea zuen Adunatik hurbil zegoen Zizurkilgo semea zela jakiteak ere bihotza ukituko zion, agian –Gizon hotza zela usteko du edonork, baina maitasun-sentimentuak ez zituen beti itotzen Antoniok–.

Filosofia ikasketak burutu eta teologia ikasketak hasi artekoan, Xabierra joan zen (1953-1956), jesuitetan ohikoa zen majisteritza *maestrillo* garaia betetzera. Han ere bere harrobia lantzen jarraitu zuen atsedenek gabe. Besteak beste, merkatuan edo eliza-atarian salgai ikusten zituzten pertsopaper denak erosi eta bidaltzeko eskatu zien gurasoei. Baita bidali ere haiek.

Bertsopaper horietako bat, biziki maite zuena. Luis Rezola Arana *Txime-la* herritarrak egindakoa zen, Tolosako zaindari Izaskungo Amabirjiña korroatu zutenean.

«Ekarri'ttut, ekarri'ttut!»

Ba omen zen Xabierren ikasten ari ziren mutikoen artean bat beti bertsopaperak edo kanta-papelak gora eta behera aritzen zen hamabi-hamahiru urteko mutiko azkoitiar bat. Eta pittin bat zirikatuz edo, hurrengo oporraldian etxera joaten zenean, kanta-paperak ekartzeko eskatu zion:

«Ea bueltakoan etxeko kanta-papelak ekarriko zizkidan eskatunon, begiratu bat emateko. Eta oporrak bukatu ziranean, illundu ta gero, gu antxe geunden zai autobusak noiz etorriko mutiko-karrio.

Iritsi ziran, eta alako batean, emandako enkarguaz aaztuta nengoen ni baiña «Ekarri'ttut, ekarri'ttut» oiu egin zidan Azkoitiko mutiko orrek autobuseko leiotik...

Orduan ez nintzan konturatu, baiña 1954ko Errege bigarren edo irugarren illuntzean Xabierko gazteluaren oiñetan entzun zan oiu orrek eman zion asiera nere bertso zaar biltzeari benetan» (Elkarri-zketa, 1998, Deustu, 1999.11.17).

Azkoitiko mutiko hori, Kukuerriko Larrume Handi baserriko Alejandro Larrañaga zen/da. Berarekin hitz egin nuen lehengo udan, bere kontakizun zuzena eta argitasunak jakin nahita. Besteak beste, hauxe esan zidan:

Gabonetako oporren ondoren Xabierra joan nitzenean eraman nizkion nik Antoniok esaten zuen kanta-papel hoiek. Baina, bertso-paper-kontu horrekin batera bada hor sekula inork esan ez degun beste histori bat ere. Liburu baten historia, alegia. Antonio Zavalak berak ere ez zuen inoiz aitatzen liburu horren konturik, sufritu egiten zuen-da. Harrapatu egin zioten nonbait, eta negar egiten ere ikusi nuen hori zala-ta...

Liburu horrek historia handia zuen gurean. Gure ama zanak esan ohi zuen, Larrume Handi baserria erre egin zala nik sei hilabete nituela, Santa Ageda bezpera batean. Eta etxeak su hartu zuenean, ni lotan nengon sehaska, liburu hori eta beste bertso-paper guztiak hartu eta lehiotik atarira bota omen gintuztela, erre ez gintezen, jakina.

Ni mutikoa nintzan eta ez nintzan asko konturatzen, baina bada- kit Cánovas de Castilloren kontuak eta hola aipatzen zituela liburu horrek. Bertso batean esaten zuen «Angelillok eman zion merezi zue- na». Ba, histori hori eta Kubako gerraren historiak eta hola konta- tzen zituen liburuak. Baina baita beste gauza asko ere. Liburu hare- kin batera, gure osaba Martin zanak bilduta hemengo gerrari buruz norbaitzuek jarritako beste dozena bat edo dozena ta erdi bertso-paper ere baziran han, Francoren kontra handiak esanez. Zepaik, Loidisale- txek eta hoiek jarritako bertsoak izango ziran.» (Elbarriketa Azkoi- tian, 2009.06.04).

Azkoitiko mutiko hark bertso-paper pila eraman ziola, eta «*regla de tres*» ximple bat egin nuela esaten zuen Antoniok: Urolaldeko baserri bakar ba-

tean horrelako bertsopaper pila badago, zenbat ote dago Euskal Herri osoan?».

Eta honela osatzen du handik aurrerako bere proiektuaren historia, Zavalak berak esaten zuenez: «Andik denbora asko baiño leen, udako oporraldietan Azpeitiko Loiolatik leenengo eta Donostitik urrena, eta bai eskutitzen bitartez ere, bati eta besteari nere asmoen berri emanez ekin nion bertso zaar biltzeari, gazte izateak duen berotasunarekin» (Txirrita, Auspoa sail urdina, 1992, hitzaurrea).

Gaztetasunak berez duen ausardiaz eta adorez hasi zen jesuita gaztea, jaiegun eta oporretan lan extrak eginez, Euskal Herriko auzo eta baserrietara hurbilduz, astirik zuenero, bati hau galdetu eta besteari hura eskatuz, ordu arte beste inork aintzat hartu ez zituen bertsopaper eta kontakizunak bildu eta jasoz. Baina,

«Garai artan bertsopaper edo «bartolokeri» oiek biltzea parregarria zan askoren iritiz, utsaren urrengoa. Ori zertarako?, esango zizuten. Egia esan, lantegi ontara erdaldunak geiago animatu ninduten euskaldunak baiño. Izan ere, garbizalekeria indarrean zegoen artean, eta bertsopaperetako euskera mordoilloa ez zuten begi onez ikusten askok. Alakoiei erantzuna ematen saiatu nintzan 1956an Arantzazun eman nuen nere leenengo itzaldi artan. Erdaldunak, berriz, aurre-iritzi oker ori ez baitzuten, onelatsu esaten zidaten: «Egin ezazu lan ori, orrek gero ta geiago balioko du-ta».

1956: Arantzazuko hitzaldia

Bakarrik, kritika artean baina etsi gabe ari zen Antonio, oporretan Loiolara edo Donostiara etortzen zenean. Eta haren lanaren oihartzuna zabalitzen hasi zen. Eta hara non eskatzen dion Euskaltzaindiak hitzaldi bat emateko Arantzazun, 1956ko irailaren 15ean. Euskaltzaindiak gerra ostean egin zuen lehenengo batzar irekia zen. Eta bai hitz egin ere gogotik tolosarrak egiten ari zen bidea aztertuz. «Hace ya dos años que no hago sino leer y copiar *bertso berriyas*», esan zuen ((Euskera, 1956). Ordurako bai omen zituen berrogeita hamar mila bertso inguru han-hemen bilduta. Baina lanean

jarraitu zuen buru-bihotz gehiago biltzen. Hitzaldiaren izena, *En busca de la poesia popular a través del País Vasco – Bertso berrien billa Euskalerrian zear* (Auspoaren auspoa I: Auspoa, 238). Bere egitasmo eta helburuaren deklarazio zehatz eta argia izan zen lehenengo hitzaldi hura; eta helburu hari jarraitu zion gero urte askoan. Ez zioten alde zurretik eskatu nonbait hitzaldia euskaraz emateko, eta erdaraz hitz egin zuen –Norbaitek gogor protestatu zuen erdara entzuteko Bilbon gelditzea nahikoa zuela esanez–. Hala ere, esan zuen pentsamendu batek kontsolatzen zuela: «Beti izaten da euskara erdararen menpeko, baina nere bilketa onetan erdara izango da euskararen morroi».

1957ko abenduan eman zuen bigarren hitzaldia, Donostian. Gaia: *Gure erriaren fedea, bertsoan ageri denex. Religio-bertsoak*. Hitzaldi kaskarra presatu eta lotsa ikaragarria eraman omen zuen Gipuzkoako hiriburuan eman behar zuen –Beno, beti zen lotsati amorratua Antonio Zavala jendearen aurrean. Horrexegatik, «Ni ez naiz plaza-gizona» errepikatzen zuen sarri.

Hirugarren hitzaldia Bilbon eman zuen, 1958ko abenduaren 14an. Gaia: *Bertsolariak eta Europako lenengo gerratea (1914-1918)*. Beraz, hiru hitzaldi, eta proiektu handi eta ireki baten proposamena, gero bere *Auspoa* bilduman erakutsi zuen bezala.

Auspoa bilduma hasi baino lehen beste liburu argitara eman zuen: *Bertsolarien Txapelketa* (Itxaropena, Zarautz, 1961). Euskaltzaindiak antolatu zuen, Donostiako Centro de Atracción y Turismoren laguntasunez, eta Victoria Eugenia antzokian egin zen, 1960ko abenduaren 18an. Txapelketa hartako bertso denak jasota egin zen liburua. Antonio Zavalak idatzi zuen hitzaurrea eta liburuaren aurkezpena, ilusioz beteta, garai berria zetorrelako:

Orain arteko bertsolarien saioak, zenbat eta ederragoak izan, ainbat eta gauza tristeago bat zekarten beren ondoren: ainbeste bertso eder beti-betiko galdu izana. Bat edo beste erriak buruz artzen zuan; gaiñerakoak momentu bateko loreak izan bear.

Republika denboran, Euskalerra guziko bertsolarien bi txapelketa egin ziran. Aietako batean, gazte mordoxka bat aurretik prestatu zan bertsoak paperera idazteko. Bertsolariak kantatu eta kopiatazailleak lapitza dantzatu... Gaur, berriz, beste konturik dago. Azken txapelke-

ta ontan bost bat magnetofon bazeuden agertokiaren saietsean. Eta saio guzian bertsolariak kantu-lanean eta tresna berri oien aria jira eta bira. Ari orrek eman du liburu au osatzeko bidea; baiña, oraingoan, letra bakar bat ere galdu gabe.

A. Zavala bertsolaritzan

Bazuen Antoniok bertsolaritzaren sail horretan nor izateko hainbat merituz eta prestakuntza, asko ikusi, asko ikasi eta aztertze aukera izan baitzuen. Garai hartako bertso-jaialdi askotan ikusi genuen Antonio bertsozaleen artean *Auspoa* liburuak saldu –baina bertsolariak baino bertsozaleek gehiago erosten omen zuten– eta bertso-jaialdiak jasotzen magnetofonoz.

60ko hamarraldian Euskaltzaindiak antolatu ohi zituen Bertsolari Txapelketeta guztietan epaimahaiko izan zen, Antonio Arruerekin, Koldo Mitxelenaekin, Joan Mari Lekuonarekin, Emile Larrerekin, Fernando Artola «Bordari» eta abarrekin, Alfontso Irigoien aurkezle eta gai-emaile zela.

Ez zen, ordea, eroso sentitu inoiz epailearen zeregin horretan. Nahiago zuen hark entzule soil izan, edota *Auspoa* liburu saltzaile eta jaialdi grabatzaile izan, bere artxiboa gizentzeko bertsozaleen eta bertsoz. Bere lagun min Bordarik behin esan omen ziona askotan errepikatu ohi zuen epaimahiaz hitz egitean:

Ark esan zidan bein bertsoa ez zala neurtzen pixura, metroz edo erlojua eskuan artuta. Neurtzekotan ere, beste era batera neurtu bear zala bertsoa; eta neurtzeko zailtasuna ortik zetorkiola. Arrazoi aundia zuela pentsatu izan det beti.

Zavala Euskaltzain

Bertso-jaialdietan bere magnetofonoa jira eta bira jarritz, baserrietara joanez –ikaragarri ibiltari bizkorra eta nekaezina zen–, edozein bide-ertzetan eserita denborapasa aurkitu zuen hainbat aitona-amonari entzunez, zenbat bitxi

eder bildu zuen ordea! Eta «Holako jendeak erakutsi dit neri iñungo liburutant ikasi ez dedana», aitortzen zuen ahoa betean.

Hola zebilela, Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen Antonio Zavala, 1961ean; eta handik hiru urtera, 1964ko abenduaren 18an, euskaltzain oso. Horrela eskertu nahi izan zion Akademiak euskararen eta herri literaturaren alde egiten ari zen lan bikaina.

Ez dut ustea, ordea, bilera askotara joango zenik, bere lanetan aspergabea eta bakartia baitzen, eta ez zuen betetzen inongo taldetako diziplinak, bileretan denbora gehiegi galtzen dela uste eta esaten baitzuen.

Euskara batuaren arauen kontuan, berriz, bere ama zenak esaten ziona zeukan gogoan beti: «Bai, bai; zuek nahi dezuten bezelako euskera eskribituko dezute, baiña irakurleak erabakiko du onartu ala bazterrera bota. Alperrik zabiltzate».

1961: Auspoa sailaren hasiera

Urte honetan hasi zen hezurmamitzen Antonio Zavalaren proiektua. 1959ko abuztuaren 11n eman zuen meza berria Tolosan, eta Zavala familiaren etxea Santa Maria parrokiaren ondoan izaki, bertso zahar kantariak entzun omen zituen gauetz:

Gaueko amabiak edo ola ziran –esan zuen–. Nekatuta nengoen, eta etxeko miradoretik kanpora begira jarri nintzan. Eta orduan, alboan dagoen *Zeru Txiki* tabernatik gau-pasazale batzuk kantuan ari zirala ikusi nuen. Zer kantatuko eta Ramon Artola tolosar bertso-jartzaille oparoaren bertso batzuk: *Bedeinkatua izan dedilla/ sagardoaren graziya...* Andik bi urtera R. Artolaren bertso-sail orrekin eman nion asiera Auspoa sailari, leenengo liburu orri *Sagardoaren graziya* izenburua jarrita (Auspoa 1, 1961).

1960ko urte inguruan ezagutu zuen Igeldoko Balentin Zamora apaiza; eta bertsoaren batzuk ere eman omen zizkion, baina, batez ere, bildumari izena jarri eta lanari aurrera eragiten lagundu zion. «Batez ere, Euskal-Erria euskera errezean idatzitako liburuen premian zala oartu giñan», esaten du garai

hura gogoratzean. Eta bere sailarentzat harpidedunak egitera abiatu zen buruz-bihotz, atez ate.

Honek zer esan nahi duen? Ba, Lan guztia berak egin behar izan zuela: bertsoak edo kontakizunak bildu, ahal zuen moduan txukundu, makinaz idatzi –bere ordenadorea eskuratu zuen arte makinaz, jakina; eta horretan goiztiarra izan zen Zavala–, liburuari forma eman eta gero harpidedunei bidali, aldi batean paketeak egin eta banaketan lagundu bazion ere bere arreba Arantzak. (1-194, bere kasa osatu zituen; 195–206, Zavala-Etor; 207-283, Zavala-Sendoa; 294–317, Zavala-Gipuzkoako Diputazioaren artean).

Handik aurrera, inork nekez pentsa zezakeen meta ederra osatu zuen bere sailean. Dagoeneko, 317 liburuk osatzen dute *Auspoa txikia* saila (1961-2010); 6 liburuk, *Auspoa berdea* saila (1974-1976); 12 liburu handik, *Auspoa sail nagusia* saila (1993-2002). Eta horiez gainera, Lazkao Txikiren *Irriz eta Malkoz I* eta *Irriz eta Malkoz II*; *Karlisten Bigarren gerrateko bertsoak*; eta *Euskal Erromantzeak – Romancero Vasco* liburu mardulak nola ahaztu?

Laguntzaile onak

Xabierren maestrillo izan zen garaian, Loiolan eta Donostian pasatzen zituen Eguberri jaiak eta udako oporraldiak, lehenago esan bezala. Eta bertso-paper eta paper zahar asko bildu zuen garai hartan.

Baina, batez ere, argi eta garbi ikusi zuen material asko zegoela Euskal Herriko baserri eta kaletxeetan, gerra etorri zenean jendeak paper asko erre bazuen ere beldurrez.

Behin Joxe Artetxe azpeitiarrarekin hitz egin omen zuen, halabeharrez; eta hark egunkarian argitara emandako idazlan bati esker, pilaka etorri zitzaizkion bertso-paperak. Gregorio de Mujika zenaren alargunak bidalitako sortaz gainera, Donostian, Erreterian, Azkoitian, Oiartzunen, Orion eta abar, asko bildu zuen. Tolosako Manuel Urreta zenak emandako sorta ez zeukan ahazteko Antoniok. Karlista handia eta euskaltzale handiagoo izaki, bertso-paper zaharrak ondo gordeta zeuzkan hark nonbait, eta bere herritar

gazteari eman zizkion, lanean nola ari zen ikusita. Don Manuel Lekuonaren laguntasuna eta animoak, edota Manterola eta beste askoren laguntza ere izan zuen esperantzaz beteta hasi zuen lantegian. Berak uste baino ere gordailu hobea aurkitu zuela esan ohi zuen lehenengo urte haietan.

Ez zuen beti suerte ona izan, ordea. Bertso bila joan, atea jo eta, «Ai, etxez aldatu ginen eta paper zaharrak erre egin genituen, ba» –esan zioten. Hain maitea zuen Pedro Migel Urruzunorekin holako zerbait gertatu omen zitzaion, Mendaroko Agustinetara joan eta zera erantzun baitzioten mojek: «Mire usted lo que pasó, padre. Que nada más morir don Pedro Miguel, enfermó de pecho una Hermana y, como comentaron que se trataba de tuberculosis y se le tenía tanto miedo por el contagio, le sacamos de la comunidad y la metimos en el cuarto que había sido del capellán. Y después que murió ésta, quemamos todo lo que había en el cuarto.

Hala ere, beste bertsopaper-iturri asko izango dela begiratzeke pentsatzen zuen; eta zerbaitegatik esango zuela pentsatu izan dugu, intuizio eta sen ikaragarrikoa baitzen. Baina nork begiratu eta aztertuko du baso ezezagun hori orain? «Gero izango dira dirua eta laguntasunak olako lanak egiteko», esaten zuen. Hola balitz ere gaitzerdi.

... eta kontrarioak

Normala ere bada gure Euskal Herri bedeinkatu honetan aldekoak eta kontrakoak izan zituen –bestela ez ginake gu izango–. Ez zen, noski, denek estimatzen zuten lanbidean ibili. Askotan aitortu zigunez, jende askoren iritziz, pellokeria hutsak ziren holakoak, barregarrikeriak. Ez zuten ikasien «mailarik» ematen. Gainera, bertsopaperetako euskarak ez zuen balio handirik, euskara mordoiloa baitzen. Komentuan bertatik hasita kritika gogorak egin zizkieten.

Lehen ere inoiz aipatu ditugun bitxienak bakarrik aipatzeko, bere konpainiako aita Aranzadik, adibidez, zera esan omen zion lehenengo Auspoa eskuartean ikusi zuenean: «Urtetan or jardun gera kurpilotik gogor esku-soiñuari *inþernuko auspoa* esanez, eta zuk orain liburu-sorta bati *Auspoa* izena jarri?

Beste apaiz ezagun batek, berriz, honela idatzi omen zion liburua jaso zuenean: «Nola-alako liburu oiek etorkizunik ez dute. Auspoa ilda jaio da».

Lasarteko baserritar batek, Sasuetako Mikel Zuaznabar zenak, zera idatzi zion: «Zure liburuarekin batera txakurkume bat ekarri genuen gurean. Ala, *Auspoa* jarri genion berari ere izena. Baiña, zer da-ta, andik egun gutxira ilda aurkitu genuen. Beraz, zure liburu-sorta orrek ere denbora gutxian iraungo du». Baina haren iritzia ez zan egizkoa izan, eta Auspoaren harpidedun izan zen hil arte, Antoniok Deustuko hitzaldi hartan esan zuenez.

Bere lagundiko aita Juan Goikoetxeak, Goikoetxea txikiak, «Segi bide orretan gogotik Antonio, eta egin ezazu lan ori, bestela inork ez du egingo-ta. Gainera, biltzen dezun material orrek gero eta geiago balioko du», esan omen zion.

«Euskaldunak eta bertsozaleak baiño geiago animatu ninduten erdaldunak» esan ohi zuen Antoniok, penatxo zuela. Azkenengo urteetan bazituen, gainera, bere duda-muda eta penatxoak, bere *Auspoa* sailean egindako lanak izan duen arrakasta urria dela irudituta. Uste dugu bazuela horretarako hainbat arrazoi. Auspoak ez baitu izan Euskal Herriko erakunde eta komunikabideetan zantzu handirik; eta *euskal idazleen* izendegi santua bere ondareztat duen jaun ahaltsu askok ez dio «idazle» izenik ere opa nahi izan Antoniori.

Idazle eta askoz gehiago ere bazelako izango al da... Bakarrik ibili zen, eta «Obe bakarrik ibili naizen, bestela ez nuen askatasunik izango-ta lanerako» eransten zuen, diximulatu ezineko minez.

Auspoa eta prosa

Auspoa argitaratzen hasi zen garaian, prosak baino harrera hobea zuten bertsoek eta bertsopaperek. Ez zituen, ordea, bertsopaperak edo bertsoak bakarrik jaso eta argitara eman. Prosan egindako paperak eta lanak ere bildu zituen Auspoarako. Eta maisu zorrotza eta zuzena izaki, metodo ezberdinak erabili zituen jendea lanean jartzeko. Batez ere, pazientzia ikaragarria erabili zuen lanerako beti, kasu bakoitzean behar zen denbora guztia hartuta.

Prosan egindako lehenengo liburuetako bat Txirritaren lehenengoa izango zen, Txirrita handiaren ilobak kontatu eta Antoniok berak idatzia. Gero, nola idatzi behar zen ikasi zuenean Erauskinek, beste liburu bat egin zezala eskatu zion, garai bateko baserriko ohiturak eta kontu zaharrak kontatuz. Halaxe egin zuen *Aien garaia* (Joxe R. Erauskin. Auspoa berdea).

Sebastian Salaberriaren *Neronek tirako nizkin* (Auspoa 38) ere kuttuna zuen, eta saritua gainera. *Pello Errotaren bizitza* (Auspoa, 32) Asteasuko bertsolari zenaren alaba Mikaela Elizegik eta Zavalak elkarlanean egin zuten, batek kontatu eta besteak idatzi. Gero, berriz, hitz lauuko bide horri bultzada handia emango zion Uztapideren *Lengo egunak gogoan* (2009ko maiatzean berrargitaratua, Auspoa 314, lehen esan bezala). Eta inoiz letra bat idatzi ez zuen jende asko animatu omen zuen Uztapideren liburu bikoi-tz horrek, eta Antonio Zavala pozik.

Uztapiderenak egiten ari zen garaian, bazituen beste proiektuak ere. Esate baterako, Iñaki Alkainek berak idatzi zituen gauza batzuk, eta besteak, hark esan eta Antoniok makinaz idatziz, edo, hark patxadaz kontatu eta Zavalak megnetofoiz hartu eta gero transkribatuz egin zituzten.

Juan Joxe Irazustaren *Nork bere bidea* (Auspoa 143, 144 eta 145, 1980an argitara eman eta *Premio de la Crítica* merezi izan zuena) etorri ziren. Patagoniako lurraldeetan kokatutako eleberria da. Liburuotan ere eskuhartze handia izan zuen Antoniok, pertsonaiak nola banatu eta tratatu erakutsiz Irazustari, hark ez zuen-eta horretan esperientziarik.

Atañoekin izan zuen esperientzia oso bitxia izan zen. Askotan kontatu zuenez, ez omen zuen haren berririk, baina bere aita eta osaba Joxe eta Juan Kruz Zapirain bertsolari edo bertso-jartzaile ezagunak ziren; eta bien bertsoak publikatu nahirik zebilen Antonio, hasieran biografia txiki bat idatzita. Halaxe, Erreterriako Bordaxar baserrira joan omen zen behin baten, eta berak nahi zuen adinaxe argitasun eman zioten han. «Gure aita zenaren bizitzaz idatzi nahi badezu, gure anaia fraileak eskribituta dauka», esan zioten.

Amutera (Hondarribia) joan eta galdezka hasi, eta fraile txiki bat aurkitu omen zuen kaputxinoetan. Hark, ordea, aita Damaso Inzarengana bidali zuen Iruñara, Han eskatu eta berehala ekarri omen zioten Salvador Zapirainen esku-izkribua.

Hartan ere etsi ezin, ba, eta Ataño bisitatzera joan zen berriro Amutera; eta ikaragarri lan polita zela eta eskribitzen jarraitzeko eskatu zion.

Handik aurrera, hamazazpi Auspoa liburu osatu zituen Atañoekin: *Txantxagorri kantaria* (Auspoa 137-138), *Txori* (Auspoa 147), *Espetxeko negarra* (Auspoa 179), *Zigorpean* (Auspoa 181), *Eltzaorra* (Auspoa 189), *Odolkutsua* (Auspoa 192), *Maitasun-lanak* (Auspoa 193), *Etorkizuna* (Auspoa 196), *Maite itxazute etsaiak* (Auspoa 201), *Aztia usnari* (Auspoa 207), *Azkeneko saskigilea* (Auspoa 215), *Nora goaz?* (Auspoa 219), *Lotsaren iges* (Auspoa 224), *Askatasun billa* (Auspoa 234), *Ondaretxat gorrotoa* (Auspoa 267), *Markesgaiak. Dirua jainko* (Auspoa 280), eta *Berezko iltzailea. Ovni* (Auspoa 304). Eta oraindik ere agortzeke dago Ataño zenaren harrobi osoa.

Horrela jokatzan zuen Zavalak jendea animatuz, Joxe Azpiroz, Txomin Garmendia, Joxe Mari Lertxundi, Bixente Barandiaran, Jesus Lete *Ibai-ertz* eta beste askorekin egin zuen bezala. Animatu ez ezik nola idatzi behar zuten erakusten zien, gainera.

Indiara misiolari joatekotan ibili omen zela esan ohi zuen, baina hemen go «indioen» artean misio-lan ederra egin zuela esango nuke, sekula letra bat idatzi ez zuen jendea idazle eginez. Ez zaio inoiz eskertu Antoniori urteetan egin zuen lan pedagogiko harrigarri hori. Pentsa dezagun, ordea, inoiz ez dela berandu, nahi denean behintzat.

Oiñez eta jakin-miñez

Bere alderdi txarra ere bazuen guzti horrek, lehenaz gainera lana erruz ugaltzen baitzion Antoniori hola saiatzeak. Jendearekin hitz egin, gaiak zehaztu, haria nondik nora eraman erakutsi, nola idatzi eta banatu esan idazle berriari... Eta gero, idazlanak jasotzean, orduak eta orduak egin behar izaten zituen eskuidatzi horiek denak zuzendu, ordenagailuz idatzi eta sailkatzen, nola-halako letrak zuzen irakurriz. Puntuazioa, kapitulazioa... berak egiten zituen denak, gehienetan. «Nik debaldeko sekretariatza eskeintzen diet idazleei. Ala ere, bada ori dana naikoa ez dala irizten dionik», esaten zuen.

Azenengo urteetako liburuetan prosaren prosaz urritzen ari zen bertso-liburuen sailari bultzada bat eman nahi izan zion, prosa-liburuen martxa pittin bat mantxotuz, bere artxiboan jaso eta sailkatuta zeukan material asko argitarara emateko.

Kontuak gainazaletik aterata, garbi ikus daiteke Auspoa saileko hirurehun eta gehiago liburutan izan zuela bere aitatasun zuzena Antoniok. Areago, Auspoak argitarara eman dituen liburuetatik, ehun edo gehiago liburu-
ren egile zuzena izan ez ezik gainerako guztien biltzaile, eragile, kopiatzaile eta editore izan zela.

Bosquejo de la historia del bertsolarismo (Auñamendi, 1964) argitaratu zuenetik, ehunka artikulua, hitzaurre eta komentario idatzi zuen. Berak zuzenean bildu, idatzi eta egunkarietan (*El Diario Vasco* egunkarian gehienik) argitarara emandako *Oiñez eta jakin-miñez* sailean atera zituenak. Auspoa 249, 1997; Auspoa 263, 1999; eta Auspoa 299, 2006 liburuetan jasota daude asko. Beste azterketa, hitzaldi, hitzaurre eta artikulua, berriz, *Auspoaren auspoa* sailean argitarara eman zituen, eta hortxe aurkituko ditu nahi duen irakurleak (Auspoa 239, 1996; Auspoa 239, 1996; Auspoa 262, 1999; eta Auspoa 300, 2006 –liburuetan).

Lan bikaina

Liburu hauek argitaratu zirenean idatzitako aipamen batzuk gogoratu nahi nituzke, laburki.

«Jakiteko irrikaz eta apal. Maitasun-begiz eta oso eskuzabal, gertaera eta gizon-emakumeengana xeratsu hurbilduz, gertaera bakoitza egoki irakurriz: historia, historia bezala; eta kondaira, kondaira bezala, baina azalean geratu gabe... (Pello Esnal)».

Oiñez eta jakin-miñez liburu horiei buruzko beste bi aipamen gogoratu nahiko nituzke. Lehenengoaren hitz-aurrean, honela irakur daiteke:

«Zenbat millaka orrialde makinaz edo ordenadorez para dituan iñork jakin gabe! Zenbat ordu, zenbat gau eta egun orretan emanak! Orrelako sekretario eta langille merkerik ez da izan Euskalerrian orain-daiño (Joakin Berasategi. Sendoakoa eta Zavalaren lagun mina)».

Bigarrenaren atarian:

«Kostako da aurkitzen Zavalaren hau baino liburu informatzaile hobirik. Lehen esan dizut dozenaka liburu erosten dituzula gure tolosararren *Oñez eta jakin-miñez* hau erostean. Ez da gehiegikeria bat esatea. Jakintsu baten urteetako ibilien eta azterketen fruitua duzu eskuetan duzun liburua, neke askoren fruitua, eta zuk eroso asko balia dezazukeena. Ez daukagu guk suerte makala Antonio Zavala bezalako gizonekin. Ez dakit noiz eskertuko dugun gizona (Joxe Mari Aranalde)».

Antoniori ez zitzaizkion gustatzen honelako aipamenik, baina nori berea. Horiek ez dira, gainera, losintxa merkeak, baizik haren lana pittin bat ezagutzen zutenen aitorenak.

Biblioteca de Narrativa Popular

Ibiltari nekaezina eta mendizale porrokatua zela Antonio esan dugu ares-tian. Baina ondo hezia zen, bidez bide zebilenean belarria erne eta begiak argi erabiltzen zituen. Galdetzaile zuzena, gainera, erantzun bat eman ziezaiokeen norbait aurrean harrapatzen zuenean. Artzain edo baserriko jendearekin hitz-aspertu ederrak egiten ahalegintzen zen, jende horrek zer esan asko izan eta asko erakusten duelako, bere iritiz.

Garai batean baztertuta-edo utzi zituen beste bilketak egiten saiatu zen gero ere. Aspaldi egindako elkarrizketa batean luze eta zabal kontatu zigunez, etxetik irten eta mendi buelta bat egitea erabaki omen zuen behin, bere liburuen zuzenketak egiten ari zenean askotan egiten zuen bezala. Eta kasualidade ikaragarria gertatu zitzaion. Bilintxen liburuaren probak (Ausporen Sail nagusia 9, 1984) zuzentzen ari zen, neka-neka eginda egon nonbait, eta han Caseda aldera abiatu zen, arratsalde pasa, Bardeetako bidean dagoen San Zoiloren ermita gotiko dotorea ikusi, argazki batzuk egin eta idazlan bat prestatzeko asmoz, bere *Oñez eta jakin-miñez* sailerako, jakina – Ermita hortantxe pasatzen omen zuten gaua Erronkariko mendietatik Aragoiko erriberetara artaldearekin zihoazten artzainek–. Eta, ustekabean, tapa!, bide-ertzean aitona bat ikusi omen zuen enbor zahar baten gainean eserita. Eta, beti bezala, galdezka hasi zitzaion. Eta:

«¡Oh, San Zoilo! Allá íbamos nosotros cuando éramos jóvenes...» –eta kontu-kontari hasi omen zitzaion aitona hori. Antoniok zer egingo, eta «Honekin zerbait egin beharko nuke ba!» bere buruari.

Handixe sortu ziren gero *Las tardes de la Bardena* hiru liburu bikain (Humbelino Ayape-Antonio Zavala).

Sail honetan *La última trova* liburua atera zuen lehenengo, *Biblioteca de Narrativa Popular* sail berria irekiz. Comillasen zegoela, an inguruko herri batera joan omen zen goiz batez, eta monumentu txiki bat aurkitu bidean, «A Indalecio Zaballa Masio, trovador mayor de Cantabria» zioena. Harrigarria benetan: Zaballa abizena eta bertso-jartzailea, «trovador mayor». Bera, berriz, Zavala eta bertso biltzailea.

Bistan da, beti gauza bera zuela hark buruan: Ahozkotasuna.

Haiek kontatu eta Antoniok grabatu edo idatzi, horrelaxe osatu zituen *Biblioteca de Narrativa Popular* sailean argitara emanda dauden hogeita bederatzi liburu, zein baino zein ederrago. Humbelino Ayape, Indalecio Zaballa Masio, Hilario Jarne, Justo Peña, Juan Rugarcia, Juan Balbin, Daniel Cuesta, Felix Lumbreras, Alfredo Caldevilla, Bonifacio Garcia, Francisco Argandoña, Antonio Rodriguez, Casquero anaiak, Encarnación Molina, Juan Pablo Jimenez eta Modesto Celadaren kontakizunak bildu zituen. Hobeki esateko, kontalari bakoitzarekin, Antoniok elkarlanean egindako liburuak dira horiek denak, bestela inoiz argitaratuko ez ziren lekukotasun eta istorio ederrak. Hortxe daude orain edonoren eskura, ehunka ordutako lanaren emaitza.

Hala ere, zalantza eta kezka handiak izan zituen gaztelera-zko sail horri eskuak eransteke garaian. Beldurra edo lotsa ematen zion nonbait euskara ez zen beste hizkuntza batean liburuak egiten hasteak.

Aurrera egin zuen, ordea, izan ere, «Batek, kontakizun oietako batzuk kontatzean, onela esan zidan: «Liburu eder bat egiteko badezu or gaia» (Uztapidek esan zion hori). Eta beste batek, Aragoi aldeko kontakizunak nere ahotik entzutean: «Jendeak nai duena esan dezala. Ori leengo lan bera da, bi izkuntzatan egiña izatea (Berrondo apaizak)» (Elkarrizketa 1997).

Goraipamen eta sariak

Antonio Zavala bakartia eta izua zela esan dugu. Baina aspergabea zen, lehiatia, amestia. Hura pittin bat ezagutu zuen edonork badakienez, berriz, ez zen sari eta omenaldien zalea. «Oso gaizki pasatzen det nik olakoetan», esan ohi zuen.

Hala ere, onartu zituen inoiz holako goraipen eta sariak. Liburuen sailean, besteak beste, honakuok saritu zizkioten, oker ez banago: *Neronek tirako nizkin* (Auspoa 38, 1964) Sebastian Salaberriak eta Antoniok elkarlanean idatzia.

Biblioteca de Narrativa Popular sailean, berriz, *En la ribera de Cares* (BNP 11, Juan Rugarcia-Antonio Zavala) liburuari «Premio Asturias 1996» eman zioten; eta *En la montaña de León* liburuari (Daniel Cuesta-A.Zavala) «Premio al mejor libro Leonés de 1996», Leongo Diputazioak».

Horiez gainera, Durangoko Gerediaga elkarteak urteoraz antolatzen duen Euskal Liburu eta Disko Azokan *Argizaiola* eman zioten, 1996ko abenduan. 1999an, berriz, erakusketa bibliografikoa antolatu zuten azokan horretan, bere omenez. Antoniok asko estimatzen zuen Derioko Labayru ikastegiak, berriz, *Gatzontzia* saria eman zion, 1997ko uztailaren 11n.

Honoris Causa doktore

Deustuko Unibertsitateak *Honoris Causa* doktore izendatu zuen, 1999ko azaroaren 17an, Gotzon Garate jesuita eta Filosofia eta Letretako Fakultateko Euskal Filologiako lagun batzuen eskariz. Herri-literaturari buruzko jardunaldiak eta urte askoan Auspoa saileko liburuak argitara eman zituen Sendoa argitaletxeko bere lagunek «Zavalari eta Auspoari» buruzko erakusketa antolatu zuten.

Izendapen egun hartako goralpen-hitzaldia edo Laudatioa entzutean, Antoniok berak hitz egin zuen, urduri baino urduriago, urte askoan egingdako bere lanaren aitortpena onartu zuela esanez: «Biltzaile izan naiz, eta billatzaile, bereziki... Aldi ontan, nereari ez ezik beste askoren buruari

ere eransten diozute txapela gaur» aitortu zuen, sari hura bere lanean lagundu zioten guztiei ematen ziotela esanez, beretzat gehiegi balitz bezala. Beretzat ez baina herriarentzat gauza handia egin zutela aitortu zien ohore hori egin ziotenei: «Baña neretzat bakarrik ez da. Gure erriarentzat gauza aundia dala derizkiot. Gure erriaren izkerak eta literaturak oso gutxitan artu dute gaurkoa añaiko goralpenik eta onespenik. Egia esan, iñoiz eman zaien oorerik aundiena une onetan eskeintzen zaie», aitortu zuen.

Herriko seme kuttun

Bere jaioterriak, berriz, *Herriko seme kuttun* izendatu zuen, 2000ko urrian.

Herriaren omenaldi hura zela-ta ekintza bereziak antolatu zituzten Tolosan. Besteak beste, «Auspoaren Auspoa» erakusketa egin zen Antonio Maria Labaien kulturetxean, urriaren 3tik 15era. Eta *Herriko seme kuttun* izendatzea herriko etxeko areto nagusian egin zen, urriaren zazpi eguerdian. Izendapen aurreko egunetan –eta egunean bertan ere– beti gauza bera errepikatzen zuen: «Ia leenbaitleen pasatzen dan au ere. Gaiñera, Tolosan badago nik baiño merezimentu geiago duen jendea».

Urriaren 7an bertsolari-jaialdia izan zen Leidor Zineman, Laskorain Kulturalak antolatuta, bertsolariak eta bertsozaleak beti zor izango dioten esker onaren lekuko –Ez dakit hori nahikoa den–.

Lan estimagarria bezain estimagaitza egin zuen Antoniok bertso paper eta ahozkotasanaren alde. Eta lan hori honela laburbildu zuen Joan Mari Lekuona zenak izendapena egin zutenean:

Aspaldi igarri zuten Antonio Zavalaren obraren gailurra bertsolaritzaren corpusari forma ematea zela. Baina, nire ustez, bertsolaritzak ez du Zavalaren lanaren esparrua agortzen, eta corpusa ez da egin digun aportaziorik handiena. Utzi digun bertsolaritzabilduma ikaragarria den arren, eta hau beste ezeren aurretik aitortu behar diogu, ez dugu ahaztu erromantzeen bilduma eta oraindik orain argitaratu gabe zeuden esaerekin atera duena. Eta ez dute gutxiago merezi bere zuzendaritzapean sortu eta garatu diren prosa-

liburuak, gure artean beste inon ez herri literaturaren modalitate berri dutenak.

Aita Zavala ikertzailea eta aldi berean gure herri-literaturaren argitaratzaile eta maisua izan da. Herri-literatura berriro eraiki du, ahozkotik datorren memoriaz baliatuz, gu bizi ahal izateko moduko tradizioaren etxetik datorrenaz.

Artxiboa Gipuzkoako Foru Aldundira

Aspalditxo hasi zituzten harreman eta elkarrizketak Gipuzkoako Foru Diputazioak eta Antonio Zavalak; baina beti gerokotan uzten zen erabaki zehatza hartzea. Alabaina, 2005eko otsailaren 2an, Pello Esnalek eta biok (Joxemari Iriondok) garrantzia handiko bilera egin zuten/genuen Antonio-rekin, Xabierren. Eta hantxe hitzeman zuen bere artxiboa Gipuzkoako Foru Aldundiari utziko ziola, bildumaren ehundik larogei (%80) Gipuzkoan jaso zuela-ta, gutxienez.

Halaxe, urteetan bildu zuen bertsopaper, eskuizkribu, liburu bitxi, grabazio, argazki eta negatibo, dena Gipuzkoarako utzi zuen, Euskal Herri osoaren eskura jar dezaten lehenbailehen. Garai hartan Gipuzkoako Ahalduen Nagusi zen Jose Juan Gonzalez de Txabarri jaunak, Jesuiten Lagundian Loiolako buru zen Joan Migel Arregik eta Antonio Zavalak berak sinatu zuten protokoloa, 2005eko azaroaren 11n, Diputazioko Tronu Aretoan.

Bestalde, han bildu ziren beren bertsoak eta prosa-lanak Auspoa sailean argitara eman dituzten Manuel Lasarte, Joxemari Lertxundi, Nikolas Zendoia, Jon Azpillaga eta abar; baita Imanol Lazkano bertsolari eta bertsozale elkarteko presidente ohia ere. Halaber, hantxe ziren Andres Urrutia Euskaltzainburu jauna, Euskaltzaindiko idazkari Xabier Kintana jauna, Jose Luis Lizundia, eta Antonio Zavalaren lagun eta laguntzaile Pello Esnal, Joakin Berasategi, Joxemari Iriondo eta abar ere.

Eta eskuartean zituen bitxirik ederrenak erakutsi nahita, Uztapide, Xalbador, eta Atañozen zenbait eskuizkribu erakutsi zion jendeari bilera hartan. Baina bere sententzia zorrotza erantsita, ordea: «Nik berdin-berdin jarraituko det lanean berriz ere».

Auspoaren jarraipena

Ez zuen askotan aipatuko, baina urteetan aurrera eta bere Auspoa sailaren geroak kezkatzen zuen Antonio, bai. Nonbaiten irakurri izan dugu «bere artxiboaren geroaz ez zuela hitz egin nahi». Hori ez da egia. Bere artxiboaren geroak kezkatzen zuen. Horrek baino gehiago Auspoak eta ahozkotasunaren jarraipenak/etorkizunak kezkatzen zuen; baina baita Auspoa sailak eta bere artxiboak ere. Haatik, 2007ko martxoaren 5ean Koldo Mitxelena Kulturunean egindako bilera batean, Auspoa proiektuari jarraipena emateko laguntzaileen izenak onartu zituen².

Ordura arte bere bakartasunean egosten zuen heltze handia bere lagunekin konpartitu nahi izan zuen, bere buruari lasaitu ederra emanaz, seguruenik. Ez zitzaion mikroa aurrean jarri eta bat-batean elkarriketan hastea gustatzen, baina bilera haren ostean, grabazio luzea egin genuen, hantxe bertan. Bere familiaz, eskolan eta umetan Adunan igarotako oporraldiez, jesuita joatea erabaki zuenekoaz, 1954ko Erregeen bigarren edo hirugarren-
goz Azkoitiko Kukuerriko mutiko hark –Alejandro Larrañagak– eraman zizkion bertsopaperez, Auspoa bilduma nola hasi zuen eta etorkizuna nola ikusten zuen... Hamaika kontu esan zigun, behin eta berriz errepikatuz hizketarako ez zela egokia bera, eta idaztea nahiago izaten zuela aitortuz.

Sufrimentuak berebaitan ehio eta itotzeko ohitura handia zuen. Izan ere, «Ixilik egoten denak behin, eta berritsuak bi aldiz erratzen du» uste zuen. Hori zen bere izateko modua eta estiloa, eta hortik nekez aterako zenuen.

Antonioren paperak Donostiara

2008ko urriaren 30ean, Xalbador, Uztapide, Ataño, Txomin Garmendia eta beste zenbaiten eskuizkribuak bidali zituen Koldo Mitxelenara, lehenen-

² Auspoa taldearen eraketa 2007ko martxoaren 5eko bileran egin zen. Antonio Zavalarekin, Pello Esnal, zu zeu eta neu egon ginen. Bilera hartan 2007ko Auspoaren libururen zerrenda onartu zen eta Antoniok, Auspoaren lan taldeko partaideen aipamen zehatza egin zuen: Joxemari Iriondo, Pello Esnal eta Jabier Kaltzakorta aipatu zituen, Auspoaren «izpiritua» eta lanen arduradun. (F.Lopez Landatxek 2009ko urriaren 7an bidalitako e-maila).

go. Eta gero, azaroaren 10ean eta 11n, dozena pare bat kaxa bete genituen berak aukeratu eta emandako paperez eta liburuz. Eta azkenik, 2009ko urtarrilaren 13an eta 14an, Antonio Zavala hil eta laster ekarri zen Xabierren zegoen material guztia Donostiara, Antonio Zavalarekin egindako tratua arabera egungo baliabide teknikoetara dena egokitu –sailkatu, digitalizatu eta ordenatu, alegia– eta nahi dutenen eskura material guzti hori jarri ahal izateko. Erabilera zuzen eta jatorra egiteko izan dadila, jatorriak/iturriak eta behar diren beste aipamenak zintzo eginez, orain arte bestela jokatu izan badu ere askok. Nori berea, hori da gizalegea.

Heriotza mingarria

Lehenago esan bezala, Urtezahar bezperan hitz egin genuen azkenengoz elkarrekin, aurreko sei-zazpi urtean egunero egin genuen bezalaxe. Hiru bider hitz egin ere. Lehenengoan, Urtezahar eta Urteberri on opatzeko hots egin zidan. Bigarrenean, bere telefono zelularra konpondu ziotela esateko; eta hirugarrenean neuk hots egin nion, telefona ondo konpondu ote zioten jakin nahita.

Gero, 2009 honetarako genituen lanez hitz egin genuen: Itxaropena argitale-txetik laster irten behar zuen Joxe Manuel Arriola *Mondragoiko kalezainaren* liburua (Auspoa 312) zertan zen, Euskaltzaindiak berehala ateratzekotan zuen Antonio Arrueren liburuaren berririk bai al nuen eta abar galdetu zidan... Uztapideren mendeurrena ere bazetorrela eta *Lengo egunak gogoan* zergatik ez genuen berrargitaratzen, gehiena pikatuta zeukala-ta, esan zidan, nahiz eta garaiz adierazi nion eskaneatu eta OCR-atuta zegoela, eta ez hartzeko beste lanik. Izatekotan ere hitzaurrea presta zezala edizio berriarentzat, eta Zestoarako hitzaldi bat prestatu nahi bazuen, harik eta hobe. 2010ean Pedro M^a Otañoren heriotzeko mendeurrena zetorrela, eta serio hitz egin behar genuela hortaz, Urnietako Albizu anaien (jaiotzez garindarrak) liburua erdi prestatuta zeukala, Txomin Garmendiaren **Egunkari**az arduratzeko, eta hola aritu ginen.

Amets eta amets, inoiz ez zen atertzen hura. Xabierreko ostatuko familiarekin argazkiak egin genituen, eta egunen batean inguruko *Jotak* bildu beharko zituzkeela eskatu zion hango nagusiari, grabagailua utziko ziola-ta.

Zenbat amets, zenbat ilusio! Baina gure asmoak eta ametsak denak hankaz gora joan ziren urtarrilaren bigarren goiz hartan. Badakigu holakoak berez etortzen direla bizitza honetan; baina lur jota utzi ninduen albisteak, hutsune ikaragarri batean amilduta. Eta estuasun hartan Antonioren eta gure lagunik minenei deika hasi nintzen. Izan ere, zer besterik egin nezakeen?

Baina poz bat gelditu zitzaigun bihotzaren barrenean: Pittinka-pittinka bere lanak bideratuta joan zela gure maisu handia, nahiz eta 1954ko Erregeen bigarren edo hirugarren egun hartan hasi zuen Auspoak 2009ko urtarrilaren 4an Xabierreko hilerrian putz egin zion azkenengo aldiz haren argi-printzari, goietako paradisuan betiko argia eta zoriona izan dezan. Ez dakit nork, baina Izaskungo Andre Mariaren himnoa intonatu zuen norbaitek haren ohorez eta maitasunez, eta ahaide eta lagunen malko artean kantuz agurtu genuen Antonio Zavala. Nekez ahaztuko dugu momentu hura!

Auspoa bilduma gogoratuz, azkenik, 1963an, Basarrik *Arantzazu* aldizkarian argitara eman zituen bertso hauek datozkigu gogora Zavalaren ohoretan:

Artzagun euskerari lagundu asmoa.
Ortarako au degu bide legezkoa.
Gure sua ez dago ain indarrezkoa;
argatik bear degu eskutan *Auspoa*.

Auspoa astintzeko oraintxe da ordu,
bestela gure suak itzali bear du.
Geienok badezute orrenbeste modu.
Guk erosi ezean nork erosiko du?

Liburuxka oietan dago Euskalerrri:
Zenbat gertakari ta bertso zoragarri!
Ikasi nai badezu milla gauzen berri,
artzazu *Auspoa* ta ondo irakurri!

Erriaren anima agertu bear zan...
Ori pentsatu zuten norbaitzuk Tolosan.
Auspoa astintzaille nai ez badezu izan,
euskalzale zeranik ez iñori esan.

Basarri
Arantzazu, 1963 (23)

Edo:

Arritzen gaitu Aita Zabalak eginda uzten dun lanak:
galtzeaz zeuden ainbeste bertso txukun jaso ditu danak,
paperetik bilduak eta lagun artean emanak,
gure izkuntza bizi dan arte irakurriko diranak.

Joxe Migel Iztueta «Lazkao Txiki

Antonio Zavala Echeverria – Kronologia

- 1928.01.23: Tolosan jaio zen.
- 1945.09.14: Jesusen Lagundian sartu eta Noviziado, Loiolan.
- 1945 - 1946: Urduñan, ikasten.
- 1950 – 1953: Oñan, Filosofia-ikasketak egiten.
- 1953 – 1956: Magisteritza Xabierren, *maestrillo* garaia betetzen.
- 1956.09.15: Lehenengo hitzaldia, Arantzazun. Gaia: *En busca de la poesia popular a través del País Vasco – Bertso berrien billa Euskalerrian zear.*
- 1956 – 1960: Oñan, Teologia ikasten.
- 1957.12: Bigarren hitzaldia, Donostian. Gaia: *Gure erriaren fedea, bertsoan ageri denez. Religio-bertsoak.*
- 1958.12.14: Hirugarren hitzaldia, Bilbon. Gaia: *Bertsolariak eta Europako lehenengo gerratea (1914-1918).*
- 1959.07.30: Apaiz egitea.
- 1959.07.31: Meza berria, Loiolan.
- 1959.08.11: Meza berria, Tolosan.
- 1960.09 – 1961.07: Gandian, ikastaroa bat.
- 1961 – 1976: Donostian, irakasle.
- 1961: *Auspoa* bildumaren lehenengo alea argitara eman zuen: *Sagar-doaren graziya eta beste berso asko* (Ramon Artola Larrañaga). Eta euskaltzain urgazle izendatzea
- 1964: Euskaltzain oso izendatzea.
- 1974: *Auspoa* berdea saila sortu zuen.

- 1976.12.31 – 1991.08: Xabierren lanean.
- 1991.11 – 1999.08: Donostiako Jesuiten ikastetxean, irakasle.
- 1993: Auspoa urdina saila sortu zuen.
- 1993: *Biblioteca de Narrativa Popular* gaztelerako saila sortu zuen.
- 1996.12: Durangoko Euskal Liburu eta Disko azokan *Argizaiola* ematea.
- 1997.07.11: Labayru Ikastegiaren *Gatzontzia* saria jasotzea, herri-literaturaren alde egiten diharduen lanagatik.
- 1999.08: Berriri Xabiererra.
- 1999.11.17: *Honoris Causa* Doktore izendatzea, Deustuko Unibertsitatean.
- 2002.10.06: *Herriko seme kuttun* izendatzea, bere jaioterri Tolosan.
- 2005.11.11: Bere artxiboa Gipuzkoako Foru Aldundiari emateko sinadura, Donostian Diputazio jauregian.
- 2009.01.02: Xabierren hil zen.

A) **Zavala bakarka**

1. ARTOLA, Ramon: *Sagardoaren graziya*, 1961.
2. SOROA, Marcelino: *Gabon, Au ostatuba!*, *Anton Kaiku*, 1961.
3. APALATEGUI, Franzisko: *Euskal mutillak armetan (I)*, 1961.
4. ARTOLA, Pepe: *Ustex laguna detan*, 1961.
5. URRUZUNO, Pedro Miguel: *Euskalerritik zerura*, 1961.
6. ALZAGA, Toribio: *Ramuntxo*, 1961.
7. AZKARATE, Ramos: *Galtzaundi*, 1962.
8. APAOLAZA, Antero: *Patxiko Txerren*, 1962.
9. IRAOLA, Bitoriano: *Oroitzak*, 1962.
10. ZAVALA, Antonio (biltzaile): *Errege eguneko bertso sayoa (1962)*, 1962.
11. LARZABAL, Piarres: *Bordaxuri*, 1962.
12. BIILINTX, Indalecio Bizcarrondo: *Bertso ta lan guziak*, 1962.
13. IZETA, Mariano: *Dirua galgarri*, 1962.
14. LARZABAL, Piarres: *Iru ziren*, 1962.

15. ZAVALA, Antonio (biltzaile): *Ezkontza galdutako bertsoak*, I, 1962.
16. ZABALA, Alfonso M^a: *Gabon gau bat*, 1962.
17. LABAYEN, Antonio M^a: *Malentxo alargun!*, 1962.
- 18-19. ZAVALA, Antonio: *Txirrita*, 1962.
20. GOÑI, Franzisko: *Lurdes-ko gertaerak*, 1962.
21. LARZABAL, Piarres: *Erriko bozak edo nor alkate*, 1962.
22. ZAVALA, Antonio (biltzaile): *Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962)*, 1963.
23. ZAVALA, Antonio: *Aizkolariak ta beste ipui asko*, 1963.
24. ZAVALA, Antonio: *Fermin Imaz. Bertso guziak*, 1963.
25. ITURRIAGA, Agustin Paskual: *Jolasak*, 1963.
26. ZABALA, Alfonso M^a; LARRAITZ MIR, Juan: *Periyaren zalapartak*, 1963.
27. ZAVALA, Antonio: *Azpeitiko Premioaren bertsoak*, 1963.
28. MOGEL, Bizenta Antonia: *Ipui onak*, 1963.
29. ALZAGA, Toribio: *Burruntziya*, 1963.
30. ANDUAGA, Graziano: *Egusentiko txoria*, 1963.
31. SOROA, Marzelino: *Baratzan*, 1963.
32. ELICEGUI, Mikela; ZAVALA, Antonio: *Pello Errotaren bizitza bere alabak kontatua*, 1963.
33. ELICEGUI, Mikela; ZAVALA, Antonio: *Pello Errotak jarritako bertsoak*, 1963.
34. LARZABAL, Piarres: *Senpere-n gertatua*, 1964.
- 35-36. ECHAGARAY, Jose Vicente de: *Festara*, 1964.
37. CARDABERAZ, Agustin: *Euskeraren berri onak*, 1964.
38. SALAVERRIA, Sebastian: *Neronek tirako nizkin*, 1964.
39. ZAVALA, Antonio (biltzaile): *Amar urteko bertso-paperak (1954-1963)*, 1964.
- 40-41. ZUBILLAGA, Jose Ramon: *Lardasketa*, 1964.
42. UZTAPIDE, Manuel Olaiola: *Noizbait*, 1964.
43. ZAVALA, Antonio (biltzaile): *Bertsolari-txapelketa (I-I-1965)*, 1965.
44. LARZABAL, Piarres: *Hilla esposatu*, 1965.
- 45-46. SATRUSTEGUI, Jose Maria: *Bordel bertsularia*, 1965.

47. URRUZUNO, Pedro Migel: *Iru ziri*, 1965.
48. BARRUTIA, Pedro; SOR LUISA, MUNIBE, Xabier: *Teatro zaarra*, 1965.
- 49-50. ZAVALA, Antonio: *Pello Errotaren itzala*, 1965.
51. URRUZUNO, Pedro Migel: *Ur-zale baten ipuiak*, 1965.
- 52-53. ANDUAGA, Graziano: *Bertso-bilduma*, 1965.
54. ZAVALA, Antonio: *Pernando Amezketarra bertsolaria*, 1966.
55. BASARRI, Iñaki Eizmendi: *Laugarren txinparta*, 1966.
56. ZAVALA, Antonio: *Udarregi bertsolaria*, 1966.
- 57-58. BEOBIDE, Crispin: *Asis'ko Lorea*, 1966.
59. ZAVALA, Antonio: *Axentzio Txanka bertsolaria*, 1966.
60. ZAVALA, Antonio: *Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari*, 1966.
61. ZAVALA, Antonio: *Gaztelu bertsolaria*, 1966.
62. ZAVALA, Antonio: *Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria*, 1967
- 63-64. ZAVALA, Antonio: *Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak*, 1967.
65. SATRUSTEGUI, Jose Maria: *Luzaide'ko kantiak*, 1967.
66. ZAVALA, Antonio: *Iru bertsolari*, 1967.
67. ZAVALA, Antonio (biltzaile): *Bertsolari-txapelketa (11-VI-1967)*, 1967.
- 68-69-70. ZAVALA, Antonio: *Alzo'ko Imaz bertsolaria*, 1967.
- 71-72. ITURRIAGA, Agustin Paskual: *Ipuiak*, 1967.
73. ZAVALA, Antonio: *Iru anai bertsolari*, 1968.
- 74-75. ZAVALA, Antonio: *Erretereria'ko bertsolari zaarrak*, 1968.
76. ZAVALA, Antonio: *Alza'ko bertsolari zaarrak*, 1968.
- 77-78. ZAVALA, Antonio: *Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsoak*, 1968.
- 79-80-81. ZAVALA, Antonio: *Lexo bertsolaria*, 1968.
82. ZAVALA, Antonio: *Juan Maria Zubizarreta bertsolaria*, 1969.
83. ZAVALA, Antonio: *Motza, Zulaika ta Ugalde bertsolariak*, 1969.
84. MATXAIN, Manuel: *Uste gabea*, 1969.
85. XALBADOR, Fernando Aire: *Ezin bertzean*, 1969.
- 86-87. ZAVALA, Antonio: *F. Iturzaeta bertsolaria*, 1969.
- 88-89-90. ZAVALA, Antonio: *Xenpelar bertsolaria*, 1969.

91. ZAVALA, Antonio: *Txapel bertsolaria*, 1969.
92. ALKAIN, Iñaki; ZAVALA, Antonio: *Alkain aita-semeak*, 1970.
93. ZAVALA, Antonio: *Zubeltzu ta Saikola bertsolariak*, 1970.
94. ZAVALA, Antonio: *Atano ta Estrada bertsolariak*, 1970.
- 95-96. ZAVALA, Antonio: *Azkoitia'ko zenbait bertsolari*, 1970.
97. ZAVALA, Antonio: *Bidasoa aldeko bost bertsolari*, 1970.
- 98-99. OLEA, Inozentzio: *Goierriko lorak*, 1970.
100. LASARTE, Manuel: *Bertso-xorta*, 1970.
- 101-102. ZAVALA, Antonio: *Txirritaren bertsoak I*, 1971.
- 103-104. ZAVALA, Antonio: *Txirritaren bertsoak II*, 1971.
105. ETXEBERRIA, Jose Inazio: *Mendi gañetik*, 1971.
106. ZAVALA, Antonio: *Pastor Izuela. Ezkioko ta Segurako itxuak*, 1971.
107. ZAVALA, Antonio: *Zepai bertsolaria*, 1971.
108. MATTIN, Mattin Treku: *Ahal dena*, 1971.
- 109-110. LAFFITTE, Piarres: *Mañex Etchamendy bertsularia*, 1972.
111. ZAVALA, Antonio (biltzaile): *Xenpelar saria*, 1972, 1972.
112. BASARRI, Iñaki Eizmendi: *Sortu zaizkidanak*, 1973.
113. URRUZUNO, Pedro Migel: *Sasiletrau baten ziria*, 1973
114. ZAVALA, Antonio: *Kaskazuri bertsolaria*, 1973.
115. ZAVALA, Antonio: *Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak*, 1973.
116. ZAVALA, Antonio: *Oiartzungo bost bertsolari*, 1973.
- 117-118. ENBEITA, Balendin: *Nere apurra*, 1974.
119. ZAVALA, Antonio: *Oiartzungo beste lau bertsolari*, 1974.
- 120-121-122. ZAVALA, Antonio: *Mendaro Txirristaka*, 1974.
- 123-124-125. ZAVALA, Antonio: *Zapirain anaiak*, 1975.
126. ZAVALA, Antonio: *Ustu ezin zan ganbara*, 1976.
127. AROZAMENA, Mikel: *Nere aldia*, 1976.
128. ZAVALA, Antonio: *Amodiozko penak bertso berrietan*, 1976.
129. ZAVALA, Antonio: *Afrika'ko gerra (1859-1860)*, 1977.
130. ZAVALA, Antonio: *Patxi Erauskin bertsolaria (I)*, 1978.

131. ZAVALA, Antonio: *Patxi Erauskin bertsolaria (II)*, 1978.
132. ZAVALA, Antonio: *Patxi Erauskin bertsolaria (III)*, 1978.
133. ZAVALA, Antonio: *Arrantzaleen bizitza*, 1978.
134. ARRIZABALO, Jose Manuel; ZAVALA, Antonio: *Baso-mutillak*, 1979.
135. ZAVALA, Antonio: *Jaiok bizi nai*, 1979.
136. ZAVALA, Antonio: *Noe'ren ontzia*, 1979.
- 137-138. ATAÑO, Salbador Zapiroain: *Txantxangorri kantaria*, 1980.
139. ZAVALA, Antonio: *Soldaduzkako bertsoak*, 1979.
140. ZAVALA, Antonio: *Nekazariak bai miseriak*, 1979.
141. ZAVALA, Antonio (biltzaile): *Bertsolari-Txapelketa Nagusia (Donostia, 1980-I-6)*, 1980.
142. ZAVALA, Antonio: *Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak*, 1980.
143. IRAZUSTA, Juan Jose: *Nork bere bidea (I)*, 1980.
144. IRAZUSTA, Juan Jose: *Nork bere bidea (II)*, 1980.
145. IRAZUSTA, Juan Jose: *Nork bere bidea (III)*, 1980.
146. ZAVALA, Antonio: *Berridi eta Kuxkullu bertsolariak*, 1980.
147. ATAÑO, Salbador Zapiroain: *Txori*, 1981.
148. ALKAIN, Iñaki; ZAVALA, Antonio: *Gerrateko ibilerak (I)*, 1981.
149. ALKAIN, Iñaki; ZAVALA, Antonio: *Gerrateko ibilerak (II)*, 1981.
150. ALKAIN, Iñaki; ZAVALA, Antonio: *Gerrateko ibilerak (III)*, 1981.
151. MATTIN, Mattin Treku: *Etxe xokotik kantari*, 1981.
152. XALBADOR, Fernando Aire: *Herria gogoan*, 1981.
153. ZAPIRAIN, Juan Krutz; ATAÑO, Salbador Zapiroain: *Zure Pasio Santua. Asis'ko San Frantziskoren bizitza*, 1981.
154. ZAVALA, Antonio: *Jan-edanaren bertsoak (I)*, 1982.
155. ZAVALA, Antonio: *Jan-edanaren bertsoak (II)*, 1982.
156. ARTOLA, Fernando «Bordari»; ARTOLA, Rafael: *Aritz beraren adarrak*, 1982.
157. ELKAR LANEAN: *Lexoti bertsolaria*, 1982.
158. TREKU, Mari: *Mattin, nere gizona*, 1982.
159. GARMENDIA, Txomin: *Denbora pasa*, 1982.

160. GARMENDIA, Txomin: *Bizitzaren arian*, 1982.
161. ZAVALA, Antonio: *Kuba'ko gerra*, 1983.
162. ARRIETA, Joxe Mari: *Nere ondar alea*, 1983.
163. ARROSAGARAY, Juan Cruz: *California-tik kantuz*, 1983.
164. ZAVALA, Antonio: *Mixioetako bertsoak (I)*, 1983.
165. ZAVALA, Antonio: *Mixioetako bertsoak (II)*, 1983.
166. MANTEROLA, Marzelino: *Lore apal bat*, 1983.
167. LERTXUNDI, Joxe Mari: *Baso tarteko oiua*, 1983.
168. LAZKANO, Patxi; ZAVALA, Antonio: *Tiro tartean bertsoan*, 1983.
169. BASARRI, Iñaki Eizmendi: *Kezka-giroan*, 1983.
170. GARMENDIA, Txomin: *Bordaberi'ko gozo-mikatsak*, 1983.
171. GARMENDIA, Txomin: *Bertsolari kurrilla*, 1984.
172. SALABERRIA, Sebastian: *Nere soroko emaitzak*, 1984.
173. OLEA, Inozentzio: *Otemotzeko arnasa*, 1984.
174. ZAVALA, Antonio: *Kristaubidea bertsoan (I)*, 1984.
175. ZAVALA, Antonio: *Kristaubidea bertsoan (II)*, 1984.
176. ZAVALA, Antonio: *Ameriketako bertsoak*, 1984.
177. GARMENDIA, Txomin: *Erririk-erri*, 1984.
178. BASARRI, Iñaki Eizmendi: *Bertsolaritzari buruz*, 1984.
179. ATAÑO, Salbador Zapiain: *Espetxeko negarrak*, 1984.
180. ZAVALA, Antonio: *Euskal jokoak bertsoan (I)*, 1984.
181. ATAÑO, Salbador Zapiain: *Zigorpean*, 1985.
182. OSTOLAIZ, Mariano: *Oroipen-kutxa*, 1985.
183. ZAVALA, Antonio: *Euskal jokoak bertsoan (II)*, 1985.
184. ZAVALA, Antonio: *Esaera zaarren bilduma berria (I)*, 1985.
185. ZAVALA, Antonio: *Esaera zaarren bilduma berria (II)*, 1985.
186. ZAVALA, Antonio: *Neska-mutillen arteko bertsoak*.
187. ZAVALA, Antonio: *Ezkondu bearreko bertsoak*, 1985.
188. GARMENDIA, Txomin: *Beltzak eta zuriak mendian ardiak*, 1985.
189. ATAÑO, Salbador Zapiain: *Eltzaorra*, 1985.

190. ZUBIARRAIN, Paulo «Ernani Txikia»: *Ia kantatuz bezela*, 1985.
191. PUJANA, Basilio: *Egi batzuek aixetaratzen*, 1986.
192. ATAÑO, Salvador Zapiain: *Odol-kutsua*, 1986.
193. ATAÑO, Salvador Zapiain: *Maitasunaren lanak*, 1988.
194. ZUBIARRAIN, Paulo *Ernani Txikia: Gaziak eta gozoak*, 1988.

A. Zavala - Etor

195. AYERBE, Bartolo: *Nere mundualdia*, 1988.
196. ATAÑO, Salvador Zapiain: *Etorkizuna*, 1988.
197. AZARATE, Ramos: *Ijitoen kontraatuba eta abar*, 1988.
198. ETCHEBARNE, Erramun: *Erramun harginaren oroitzapenak*, 1989.
199. ETXABURU, Jose Maria: *Neure lau urteko ibillerak*, 1989.
200. AZPIROZ, Jose: *Arbol zarraren kimuak*, 1989.
201. ATAÑO, Salvador Zapiain: *Maite itzazute etsaiak*, 1989.
202. ZAVALA, Antonio: *Frantziako iraultza eta Konbentzioko gerra bertsoan*, 1989.
203. AZPIROZ, Jose: *Gogoz kontrako pausoak*, 1989.
204. REZOLA, Luis Tximela: *Bakardadeko ametsak (I)*, 1989.
205. REZOLA, Luis Tximela: *Bakardadeko ametsak (II)*, 1989.
206. LETE, Jesus Ibai-Ertz: *Orrela ziran gauzak*, 1990.

A. Zavala - Sendoa

207. ATAÑO, Salvador Zapiain: *Aztia usnari*, 1990.
208. ETXEBARRIA, Faustino: *Nor garan azaldu*, 1990.
209. BARANDIARAN, Bizente: *Zartu gabe ezin bizi*, 1990.
210. KARRIKA, Beñat: *Armendaritza haur begiez*, 1990.
211. PUJANA, Basilio: *Deabruak ostutako urteak*, 1991.
212. ZAVALA, Antonio: *Frantzesteko bertsoak (I)*, 1991.

213. ZAVALA, Antonio: *Frantzesteko bertsoak (II)*, 1991.
214. LERTXUNDI, Joxe Mari: *Igaroari begira*, 1991.
215. ATAÑO, Salvador Zapiroain: *Azkeneko saskigillea*, 1991.
216. ETXEZARRETA, Jesus Maria *Izazpi: Hasperen ttanta bihoztiak*, 1992.
217. AYESTA, Lino: *Gure izkuntzaren mugatik*, 1992.
218. OTAÑO, Pedro Maria: *Bertso guziak*, 1994.
219. ATAÑO, Salvador Zapiroain: *Nora goaz*, 1994.
220. LERTXUNDI, Joxe Mari: *Sorlekuaren kezka*, 1994.
221. LASARTE, Manuel: *Lazkao-Txiki gogoan*, 1994.
222. LAZKAO TXIKI, Jose Migel Iztueta: *Gertaerak eta txisteak*, 1994.
223. ALZAGA, Toribio: *Neskazar, Amantxi, Aterako gera, Biozberak*, 1994.
224. ATAÑO, Salvador Zapiroain: *Lotsaren iges*, 1995.
225. LASARTE, Manuel: *Enbor zarraren ezpalak*, 1995.
226. ETXABURU, Jose Maria: *Ondarroa'ko kontuak*, 1995.
227. ARTOLA, Ramon: *Ipuin edo kontutxoak (I)*, 1995.
228. ARTOLA, Ramon: *Ipuin edo kontutxoak (II)*, 1995.
229. ESNAL, Pello: *Itzuliko naiz*, 1995.
230. KAZABON, Antton: *Koskotenekoak*, 1995.
231. BARANDIARAN, Bizente: *Lanik gabe ezin bizi*, 1995.
232. ZINKUNEGI, Agustin: *Bizi naiak lege zorrotzak*, 1995.
233. ARZAK, Antonio: *Idazlan-sorta*, 1995.
234. ATAÑO, Salvador Zapiroain: *Askatasun bila*, 1996.
235. MUJIKA, Teodoro: *Errekaldeko intxaurraren itzala*, 1996.
236. LERTXUNDI, Joxe Mari: *Beti festara begiak*, 1996.
237. ETXEBARRIA, Faustino: *Nire gazte denpora*, 1996.
238. ZAVALA, Antonio: *Auspoaren auspoa (I)*, 1996.
239. ZAVALA, Antonio: *Auspoaren auspoa (II)*, 1996.
240. ARANALDE, Joxe Mari: *Xalbador pertsularia*, 1996.
241. AYERBE, Bartolo: *Zaarrak berrituz*, 1996.
242. KAZABON, Antton: *Jose Joakin Mitxelena bertsolaria*, 1996.

243. IRAOLA, Biktoriano: *Au poza senti det eta beste bertso asko*, 1996.
244. OLEA, Inozentzio: *Bizitza izbide*, 1997.
245. AYESTA, Lino: *Ikusiak eta entzunak*, 1997.
246. ZUBIMENDI, Joxe Ramon: *Bidezkoak*, 1997.
247. SALABERRIA, Sebastian: *Sagardotegiak*, 1997.
248. LASARTE, Manuel: *Kantuaren ordaiñez*, 1997.
249. ZAVALA, Antonio: *Oiñez eta jakin miñez*, 1997.
250. AZPIROZ, Jose: *Alkarrentzat jaiok*, 1997.
251. PUJANA, Basilio: *Oiuak*, 1997.
252. IBARGUREN, Kasiano: *Kantari bizi naiz*, 1997.
253. AYERBE, Joxe: *Alako batean*, 1998.
254. ZENDOIA, Nikolas: *Beranduko birigarroa*, 1998.
255. KALONJE, Segundo: *Loreak udan intza bezela*, 1998.
256. LIZASO, Koxme: *Jose Joakin Mitxelena gogoan*, 1998.
257. ZAVALA, Antonio: *Ezkontza galdutako bertsoak II*, 1998.
258. ARANALDE, Joxe Mari: *Bihotzak dion hura*, 1998.
259. ETXABARRIA, Juan Manuel: *Zeberrioko kantak*, 1998.
260. LATXAGA, Jose Maria San Sebastian: *Euskal sena*, 1999.
261. LASARTE, Manuel: *Uztapide gogoan*, 1999.
262. ZAVALA, Antonio: *Auspoaren auspoa III*, 1999.
263. ZAVALA, Antonio: *Oiñez eta jakin miñez II*, 1999.
264. ARANALDE, Joxe Mari: *Bertso-kontuak*, 1999.
265. BARANDIARAN, Bizente: *Tratabideak*, 1999.
266. ALDALUR, Justina: *Ama Birjiñaren bizitza*, 1999.
267. ATAÑO, Salbador Zapirain: *Ondaretzat gorrotoa*, 2000.
268. OSTOLAIZ, Mariano: *Senda-belarrak*, 2000.
269. GERRIKAGOITIA, Tomas: *Arantza eta larrosa*, 2000.
270. BASTERRETXEIA, Andoni: *Ene Ondarru*, 2000.
271. ATAÑO, Salbador Zapirain: *Jesusen bizitza*, 2001.
272. AIZPURUA, Mikel: *Hasi, Azpillaga*, 2001.

273. LARRE, Emile: *Ene artzain-etxolak*, 2001.
 274. ARANALDE, Joxe Mari: *Xalbadorren barrua*, 2001.
 275. IRIONDO, Joxe Mari: Joxe Lizaso. *Nere aldiko kronika*, 2001.
 276. INSAUSTI, Jose: *Beti bertsoa buruan*, 2001.
 277. MATXAIN, Manuel: *Uste gabea*, 2002.
 278. OLEA, Inozentzio: *Ostiraleko kronika Segura Irratian (1986-1992) I*, 2002.
 279. OLEA, Inozentzio: *Ostiraleko kronika Segura Irratian (1993-1997) II*, 2002.
 280. ATAÑO, Salvador Zapiain: *Markesgaiak. Dirua jainko*, 2002.
 281. ZAVALA, Antonio: *Estropadak bertsoan*, 2003.
 282. IRIONDO, Joxemari: *Segi, Mugartegi*, 2003.
 283. IRAOLA, Rufino: *Nañarriri begira*, 2003.

A. Zavala – Foru Aldundia (KM)

284. ARTOLA, Ramon: *Sagardoaren graziya II*, 2003.
 285. IRUNTXIBERRI, Leon Albeniz: *Nere berriketa eta aitortza*, 2003.
 286. AZKARATE, Ramos: *Galtzaundi berriz ere I*, 2004.
 287. AZKARATE, Ramos: *Galtzaundi berriz ere II*, 2004.
 288. ETXAMENDI, Pedro Juan: *California'ko bertsolari eta musikari*, 2004.
 289. GARZIANDIA, Jose Agustin: *Garai bateko Unanuko oiturak eta olgak*, 2004.
 290. XALBADOR, Fernando Aire: *Odolaren mintzoa*, 2004.
 291. URRUZUNO, Pedro Migel: *Koroi eder bat*, 2005.
 292. APALATEGUI, Francisco: *Karlisten eta liberalen gerra-kontaerak (I)*, 2005.
 293. APALATEGUI, Francisco: *Karlsiten eta liberalen gerra-kontaerak (II)*, 2005.
 294. LASARTE, Manuel: *Plaza-gizonak*, 2005.
 295. ZENDOIA, Nikolas: *Egan dijoa*, 2005.
 296. IRIONDO, Joxemari: *Basarri I: bat-batean*, 2006.
 297. ARTOLA, Pepe: *Ustex laguna detan*, 2006.
 298. TREKU, Mattin; TREKU, Mayi: *Mattin bertsularia*, 2006.
 299. ZAVALA, Antonio: *Oiñez eta jakin miñez III*, 2006.

300. ZAVALA, Antonio: *Auspoaren auspoa IV*, 2006.
301. ZAVALA, Antonio; IRIONDO, Joxemari: *Mattin eta Xalbador*, 2006.
302. IRIONDO, Joxemari: *Xanpun bertsularia*, 2006.
303. ARROSSAGARAY, Joanes: *Bihotz barneko solasak*, 2007.
304. ATAÑO, Salbador Zapiain: *Berezko iltzaillea*. Ovni, 2007.
305. Artetxe, Pello Urdaneta: *Nere bizitzaren gurdia*. 2008
306. Jean Pierre Mendiburu: *Ene bertsuen feiria*, 2008
307. Ernest Alkat: *Ene ezkilaren danga*. 2008
308. Nikolas Zendoia: *Sasi guztien gaiñetik*. 2008
309. Joxe Aierbe: *Agindua zor*. 2008
310. Antonio Zavala: *Gabon eskeko bertsoak (1814-2000)*. 2008
311. M. Lasarte-Iñaki Zubizarreta: *Iturria ondare*. 2008
312. Joxe Manuel Arriola: *Mondragoiko kalezaiñaren bertsoak*. 2009

A. Zavala hil ondoren

313. Nikolas Aldai-Pello Esnal: *Uztapide bat-batean*. Antologia, 2009
314. Uztapide-A. Zavala: *Lengo egunak gogoan* (4. aldiz)
315. Kruz Azkarate: *Ondorengoak jakin dezaten*, 2009
316. Patxi Iraola: *Naizen aputra*, 2009
317. Txomin Garmendia: *2008ko nere egunkaria*, 2010

Auspoa berdea saila: A. Zavala - Sendoa

- UZTAPIDE, Manuel Olaizola: *Lengo egunak gogoan* (I), 1974.
- UZTAPIDE, Manuel Olaizola: *Lengo egunak gogoan* (II), 1974.
- LASARTE, Manuel: *Gordean neuzkanak*, 1975.
- ERAUSKIN, Jose Ramon: *Aien garaia*, 1975.
- UZTAPIDE, Manuel Olaizola: *Sasoia joan da gero*, 1976.
- XALBADOR, Fernando Aire: *Odolaren mintzoa*, 1976.

Auspoaren sail nagusia: A. Zavala - Sendoa

1. ZAVALA, Antonio: *Txirrita: Jose Manuel Lujanbio Retegi*, 1992.
 2. BASARRI, Iñaki Eizmendi: *Nere bordatxotik*, 1992.
 3. LASARTE, Manuel: *Beranduko lanak*, 1992.
 4. ZAVALA, Antonio: *Karlisten leenengo gerrateko bertsoak*, 1992.
 5. ZAVALA, Antonio: *Pello Errota: Pedro Elizegi Maiz*, 1992.
 6. ZAVALA, Antonio: *Pedro M. Otaño eta bere ingurua (I)*, 1993.
 7. ZAVALA, Antonio: *Pedro M. Otaño eta bere ingurua (II)*, 1993.
 8. ZAVALA, Antonio: *Xenpelar eta bere ingurua*, 1993.
 9. ZAVALA, Antonio: *Bilintx: bertsoak eta bizitza*, 1993.
 10. ETXEZARRETA, Jesus M.: *Bertsolarien desafioak, guduak eta txapelketak*, 1993.
 11. UZTAPIDE, Manuel Olaizola: *Berriz plazara (I)*, 2001.
 12. UZTAPIDE, Manuel Olaizola: *Berriz plazara (II)*, 2001.
- LAZKAO TXIKI, Jose Migel Iztueta: *Irriz eta malkoz (I)*, Oiartzun, Sendoa, 1994.
- LAZKAO TXIKI, Jose Migel Iztueta: *Irriz eta malkoz (II)*, Oiartzun, Sendoa, 1994.
- ZAVALA, Antonio: *Karlisten bigarren gerrateko bertsoak*. Oiartzun, Sendoa, 1997.
- ZAVALA, Antonio: *Euskal erromantzeak. Romancero vasco*. Oiartzun, Sendoa, 1998.

Biblioteca de Narrativa Popular – A. Zavala - Sendoa

01. Indalecio Zaballa «Masio»-Antonio Zavala: *La ultima trova*
02. Humbelino Ayape-Antonio Zavala: *Las tardes de la Bardena (I)*
03. Humbelino Ayape-Antonio Zavala: *Las tardes de la Bardena (II)*
04. Humbelino Ayape-Antonio Zavala: *Las tardes de la Bardena (III)*
05. Humbelino Ayape-Antonio Zavala: *Las tardes de la Bardena (IV)*

06. Hilario Jarne-Antonio Zavala: *Junto al fogaril de Atarés* (I)
07. Hilario Jarne-Antonio Zavala: *Junto al fogaril de Atarés* (II)
08. Hilario Jarne-Antonio Zavala: *Junto al fogaril de Atarés* (III)
09. Justo Peña-Antonio Zavala: *El pastor de Páramo* (I)
10. Justo Peña-Antonio Zavala: *El pastor de Páramo* (II)
11. Juan Rugarcia-Antonio Zavala: *En la ribera de Cares*
12. Juan Balbin-Antonio Zavala: *Entre los olivos de Jaen*
13. Daniel Cuesta-Antonio Zavala: *En la montaña de León*
14. Félix Lumbreras-Antonio Zavala: *Cuando los ciegos guían*
15. Alfredo Caldevilla-Antonio Zavala: *Una vida en los Picos de Europa*
16. Bonifacio Garcia-Antonio Zavala: *Los Merineros*
17. Diego Rodriguez-Antonio Zavala: *Aprendiz de gañán*
18. Eloy Tejada-Antonio Zavala: *Castejón y en Ferrocarril*
19. Francisco Argandoña-Antonio Zavala: *Lezaun pie de Sierrandia* (I)
20. Francisco Argandoña-Antonio Zavala: *Lezaun pie de Sierrandia* (II)
21. Antonio Rodriguez-Antonio Zavala: *En la reserva de Saja*
22. Hnos Casquero-Antonio Zavala: *Prioro, cuna de la transhumancia*
23. Diego Rodriguez-Antonio Zavala: *Andanzas de un quinto del 42*
24. Diego Rodriguez-Antonio Zavala: *Del fusil al arado*
25. Encarnación Molina-Antonio Zavala: *Cana, la hija de la maestra*
26. Eloy Tejada Herrero-Antonio Zavala: *Más historias...*
27. Juan Pablo Jimenez-Antonio Zavala: *En las dehesas extremeñas*
28. Modesto Celada-Antonio Zavala: *En la tierra de Campos*